



# GALAXIETAKO GERLA INPERIALISTA

JOSEBA SARRIONAINDIA

“Ez dugu egoerari dagokioan ezer egiterik nahi izan, hada ipuin bat baizik” (Gary Kurtz, produktorea).

GALAXIETAKO GERLA-k Luke delako gazte batek mundu esotikoetatik barrena dituen menturak azaltzen ditu. Tatooine planeta lehorrean bizi delarik Alderaan planetako Rebel Princess Leia bahituaren bila hasten da galasietatik zehar. Luke laguntzen Ben Kenobi doa, “garai hozpel hauk” orduko “denbora zaharretan” bake eta juztiaren zaintzaile ziren Jedi Knights-etatik azkena. Halaber Millenium Falcon ortziuntziko Han Solo kapitaina. Eta Chewbaccaz, tximino burudun eta begi urdineko antropoide erraldoia, eta See-Theepio (C3Po) eta Arto—Detto (R2-D2) errobotak.

Talde hau Grand Moff Tarkin-en aurka burrukatzen da, Imperial Outlandgo gobernari diabolikoa delarik, eta Dark Lord de Stih gaiztoaren aurka, bere botere estrasensorialak Tarkin-i bere Galactic Empire-aren aurkako errebotan laguntzeko erabiltzen baititu.

Printzesa askaturik, pelikularen gailurrean, Luke ikaragarritzko gudu espazial batetan sartzen da etsaien “Heriotzaren Astro” suntsitzailea indarrez hartzeko.

Eta hori da argumentoa. Hori eta gaiztoak eta zintzoak, lasser-ezpatadun samuraiak, printzesa bahitu eta zaldun askatzaileak, beti-txarrak galtzaile ta beti-onak irabazle ta kolorin kolorado. Jenero zahar baten hari narratibo klasikoa berhartzten du: erdi haroko zaldunen nobelak, mahai borobileko zaldunena, wernsten eta bigarren gerla mundialaren ikuspegi amerikanoak: Flash Gordon... epopeia ikuskari ikusgarri bat buruzeko : Espektakulo ikusgarria, kontenido ideologiko ingenuo eta inperialistarekin, ohi denez.

Pelikulan lan egiten bi urte pasatu ditu plantila handi batek teknikarik aurreratuenak erabilirik. Kalifornia, Tunes, Guatemala eta Londresen ere egin da errodaajea. Pelikula, bederatzi miloi eta erdi dolar kostatu zaie. Baina USAn, hilabete batzu bakarrik merkatuan eta, irabaziekin soberaz amortizatu dituzte kostoak, abendurako TIBURONek lortutako errekor-a berdintzea espero

dutelarik. Bestalde, espainolezko, frantsesezko ea alemanezko bersioetan ari dira lanean. Alegia, dirua eskuarki lortu dute eta lortzen ari dira eta itxaropen oraindik ere joriagoak dituzte. Eta kasutan rituala denez, “bigarren partea” gertatzen ari dira.

STAR WARS (GALAXIETAKO GERLA), beraz, teknikoki oso ona da, ikuskizun izugarri bat. Baina gai aldetik hutsa da. Bere arrakasta, agian, gauza ikusgarrien arrakasta baino zerbait gehiagoren sintoma da: fenomeno soziologiko batena.

Zientzia-fikzioa, jenero bezala, Iparamerikan eta mende honen bigarren hamarrurtean sortu zen. Lehen gerla mundialaren garaipenaren ondoko giro triunfalista eta 29.eko depresio ekonomikoaren artean eta klase dominanteak bultzaturik, babesturik eta bermaturik. Zientzia fikzioaren ideologia, beraz, iparamerikako klase dominantearen ideologia pseudodemokratizista eta inperialista izan da.

Eta , batez ere krisis garaietan, zientzia-fikzioa langile masa langabe eta goseak mitoz elikatzeko erabili izan da. Barrutik hutsik legokeen Valenciako lanranja handi gorri horietako bat balitz bezala. Eta hutsa ordezteko, wersten-aren ordeztu eta bigarren gerla mundialaren ordeztu, heroeak aurkitu behar izaten dituzte yankiek. Pelikula hau ere kolorez eta gindaz erabat hornituriko mantekazko pastel erraldoi bat da, eta ez besterik.

Zientzia-fikzioa gaitzat harturik, pelikula zintzoak ere egin daitezke: Kubricoken 2.001 : UNA ODISEA DEL ESPACIO edota Truffaut-en FAHRENHEIT 451, esate baterako. Hauek futurismo humanista batetan oinarritzen ziren, eta oraingo errealitatea isladatzen zuten nolabait. Baina ez da hau STAR WARSen estiloa. STAR WARS errealitatea, interesaturiki, erabat itxuragabeko produkto bat da. Izan ere kontzientzia manipulatzeke aski egokia da. Etxetik lan-tegira eta lan-tegitik etxera joatea besterik ez duen hiritar galduari abentura intergalaktiko batetako heroea izatearen ilusioa eskaintzen dionak ez du zintzo jokutzen. Bere joko hau estetiko ez ezik eta neutrala ezik, zeharo zapaltzailea da. USAko inperialistak autojustifikatu eta mugimentukoliratekenei denbora galarazteko justifikazioa asimilatzen duten bitartean, erabiltzen dute.

Hau gauza oso importante bat da aparato eta dinamika ideologiko horretan. Baina agian, grabeagoa da Georges Lucas, pelikulako zuzendariak ematen duen azalpena.

“Egungo gazteriak ez du fantasia-rik, ez guk bezala. Izan duten guztia Kojak eta Dirty Harry dira. Ume guztiok lasterka ari dira batetik bestera polizia-kol hiltzaile izan nahian, ikusten dituzte pelikulak inseguritate, hondamen eta bortxa errealistazkoak direlako”.

Hitz hauei itxura larri eta nostalgikoa hartzen diet ezin bestean. Triste da orain enteratzena amerikanoek (aurrerapenaren eta askatasunaren aitzindariak omen) ez dutela errealitatearekin Kojak beste harremanik. Konsumismoak konsumitu ote die beste guztia? Baina Georges Lucas-en aburuz badugu beste alternatiba bat: urrutiko mundu gaiztoen konkistaren ilusioetan gertaraztea.